

Ebazpena: R164/2022

Espedientea: 29/2014

Vitoria-Gasteizen, 2022ko abenduaren 15ean.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunean aurreikusitako Arbitraje Batzordeak –Violeta Ruiz Almendral batzordeburuak eta Soffía Arana Landín eta Javier Muguruza Arrese batzordekideek osatuak– erabaki hau hartu du:

ERABAKIA

Gipuzkoako Foru Aldundiak (aurrerantzean GFA) Zerga Administrazioako Estatu Agentziarekiko (aurrerantzean ZAEA) aurkeztu duen gatazkari buruzkoa. Erabakiaren helburua da zehaztea ea ZAEAk eskumenik duen IFASSL zergapekoari 2003ko BEZarengatik dagokion tributazio-proporzioa aldatzeko. Gatazka Arbitraje Batzorde honetan izapidetu da, 29/2014 espediente-zenbakiarekin.

I. AURREKARIAK

1.- IFASSLk Gipuzkoan dauka zerga-egoitza 2013ko maiatzaren 28az geroztik.

2012an eta 2013an 7.000.000 eurotik gorako eragiketa-bolumena aitortu du.

2012an, eragiketa-bolumenaren % 100eko proporzioa aitortu zion GFari eta, 2013an, % 73,27 GFari eta % 26,73 ZAEARI.

2.- ZAEAk Euskal Autonomia Erkidegoan duen Ordezkaritza Bereziko Enpresa Handiak Kudeatzeko Eskualde Unitateak datuak egiaztatzeko prozedura bat bukatu zuen behin-behineko likidazio batekin, eta 2013ko abendua erregularizatu zuen.

Likidazioaren arabera, ZAEari abenduko kuota % 26,73ko proportzian ordaintzeaz gain, aurreko hilabeteetan aplikatutako behin-behineko proportzioa erregularizatu behar zen.

3.- Hala ere, BEZari dagokion behin-behineko likidazioan, ZAEAk berriro kalkulatu zuen estatuari aplikatu beharreko behin betiko proportzioa ere, eta % 25,77ra murriztu zuen, eragiketa-bolumentzat hartu zuelako aurrerakin bat.

4.- Horren ondorioz, IFASSLk sarrera bidegabeak itzultzeko eta ZAEari transferentzia egiteko eskatu zion GFari, eta 2014ko uztailaren 1ean behin-behineko likidazio horren kopia aurkeztu zuen.

5.- 2014ko abuztuaren 26an, eskumena baliatzeari uzteko errekerimendua egin zion GFak ZAEari, baina ZAEAk eskumena zuela berretsi zuen 2014ko irailaren 26an.

6.- 2014ko urriaren 24an, GFak eskumen-gatazka aurkeztu zuen, eta gatazka hori 29/2014 espediente-zenbakiarekin izapidetu da.

7.- Ohiko prozedurari jarraituz, hasierako eta bukaerako alegazioak egiteko izapidea eskaini da.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Arbitraje Batzordearen eskumena

Arbitraje Batzordeak eskumena dauka, Ekonomia Itunaren 66. Bat artikulua eginkizun hauek ezartzen baitizkio batzorde horri:

a) Estatuko Administrazioaren eta foru-aldundien artean edo foru-aldundien eta beste autonomia-erkidegoetako administrazioen artean sortzen diren gatazkak ebaztea, bai tributu itunduen lotuneen aplikazioari dagokionez, bai administrazio bakoitzari zenbateko zatia dagokion zehazteko, sozietateen gaineko zergaren edota balio erantsiaren gaineko zergaren baterako tributazioaren kasuetan.

b) Banakako tributu-harremanetako arazo zehatzetan ekonomia-itun hau interpretatzeko eta aplikatzeko orduan administrazio interesdunen artean sor litezkeen gatazkak erabakitzea.

c) Zergadunen egoitza dela-eta sor litezkeen desadostasunak ebaztea.

2.- Gatazkaren epez kanpokotasuna

GFAk adierazi du 2014ko uztailaren 1ean izan zuela behin-behineko likidazioaren berri, eta ZAEAk ez du egiaztatu eragiketa-bolumenaren proportzioa aldatzen duen bere egintzaren eduki zehatza aurretik ezagutzen zuenik. Beraz, ezin da aintzat hartu epez kanpokotasunaren salbuespena.

3.- Gaiaren funtsa

3.1.- Ekonomia Itunaren 29. Hiru artikulua hau adierazten du:

Subjektu pasiboak, egutegiko urte bakoitzean zergaren azken aitortpen-likidazioan, behin betiko proportzioak kalkulatu –epe horretan egindako eragiketen arabera–, eta aurreko likidazio-aldietan administrazio bakoitzarekin egindako aitortpenak erregularizatu egingo ditu, dagokion moduan.

Aurreko hilabeteetan aplikatutako behin-behineko proportzioa zergapekoak ez erregularizatzea –azken likidazio-aldian berak aitortutako behin betiko proportziora egokitzeko– baliteke, inguruabarren arabera, ikuskapen-eskumenik gabeko administrazio batek tributu-kudeaketa egiaztatuz erregulariza dezakeen gai material bat izatea, ez baitu eskatzen aipatutako manuaren interpretazio konplexua egitea.

3.2.- Hala ere, kasu honetan, aitortu gabeko eragiketa bat sartzea dakar erregularizazioak; aurrerakin bat sartzea, alegia. Eta horrek, era berean, eragiketa-bolumenaren proportzioa aldatzea eragiten du.

Horrez gain, adierazi behar da aurrerakinen zenbaketaren gaia ez zela guztiz baketsua izan gatazka sortu zen unean eta Arbitraje Batzordeak 8/2018 Ebazpena eman behar izan zuen horren harira. Hortaz, Ekonomia Itunaren 27. eta 28. artikuluen interpretazio juridiko konplexua egin beharra zegoen.

3.3.- Arbitraje-batzorde honek 19/2022 Ebazpenean eman zuen bere iritzia ikuskapen-eskumenik gabeko administrazio batek tributu-kudeaketaren prozeduraren bidez egindako egiaztapen-jarduerek izan ditzaketan irismen eta

edukiari buruz. Puntu honetan errepikatutzat ematen dira irismen eta eduki horiek.

Aurretik emandako 17/2013 Ebazpenean ezarritako irizpidera eta Auzitegi Gorenak 2015eko maiatzaren 11n emandako Epaian (441/2013 Errekurtsoa, ECLI:ES:TS:2015:2092) ezarritako jurisprudentziara igortzen gaitu aipatutako ebazpenak. Bi xedapen horien arabera, ikuskatzeko eskumena duen administrazioak bakarrik egiazta dezake eragiketa-bolumena.

Horren arabera, ZAEAk txosten bat egin behar zuen eta ikuskapen-eskumena duen administrazioari eragiketa-bolumenaren proportzioa egiaztatzeko eta, hala bazegokion, erregularizatzeko eskatu behar zion, zenbatu gabeko aurrerakin bat egoteagatik.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak hauxe

ERABAKITZEN DU

1.- Deklaratzea ZAEAk ez daukala eskumen materialik GFaren ikuskapen-eskumenaren mende dagoen zergapeko baten tributazio-proportzioa tributukudeaketaren prozedura erabiliz aldatzeko.

2.- Erabaki hau Zerga Administrazioko Estatu Agentziari, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta IFASSLri jakinaraztea.